PATRONATO DE CULTURA
Zizur Mayor

KULTUR PATRONATUA
Zizur Nagusia

## ZIZUR NAGUSIKO UDALEKO KULTUR PATRONATUAK ETA ZIZUR NAGUSIKO ERREGE MAGOEN KABALGATA ELKARTEAK SINATZEN DUTEN PROTOKOLO-HITZARMENA

### PARTE HARTZEN DUTE

Zizur Nagusiko Udaleko Kultur Patronatuaren partetik, bertan lehendakaria den Pilar Toral Urquizu andreak.

Errege Magoen Kabalgata Elkartearen aldetik: Rubén Aguas Urtasun, NAN *********.zenbakikoa duena.

Aipaturiko ordezkariok, PROTOKOLO-HITZARMEN hau sinatzeko bilduta, ondoren azalduko diren akordioak hartu dituzte:

**LEHENENGOA:**
Honako PROTOKOLO-HITZARMEN honen xedea hau da: Zizur Nagusiko Udaleko Kultur Patronatuaren, hemendik aurrera “Patronatua”, eta Zizur Nagusiko Errege Magoen Kabalgata Elkartearen arteko harremanak taxutzea.

**BIGARRENA:**
PROTOKOLO-HITZARMEN hau indarrean dagoen bitartean, Elkarteko kideek urtarrilaren 5eko Errege Magoen Kabalgata antolatzeko eta egiteko konpromisoa hartzen dute, baita aipatu gertaera gure herrian sustatzeko ere.

**HIRUGARRENA:**
Patronatuak jarduera hau antolatzen zuenean zituen karrozak, erregeen jantziak, pajeak eta segizioaren gainerako janzkeraren erabilera Elkarteari utziko dio.

**LAUGARRENA:**
Patronatuak udalaren lokalak utziko dizkio, Emakumearen Plazan, Elkarteak aurreikusitako zaintza, konponketa eta biltegiratzeko funtzioak egiteko asmoz. Konpartsak lokal horien garbiketa eta mantentzea beste erabiltzaileekin koordinatuko du. Halaber, Patronatuak Elkartearen bilerak egiteko toki baten lagapen puntuala erraztuko du.

**BOSGARRENA:**
Erregeen Kabalgataren ibilbidea ekitaldi ofizialtzat hartuko da, eta ondorioz Zizur Nagusiko Udalak Elkarteari beharrezko sostengu logistiko emango dio, karrozak muntatzeko ibilgailuen lagapenari dagokiona, baita ibilbidean zehar udaltzaingoaren laguntzarena ere.

## PROTOCOLO-CONVENIO ENTRE EL PATRONATO MUNICIPAL DE CULTURA Y LA ASOCIACIÓN CABALGATA DE REYES MAGOS DE ZIZUR MAYOR

### INTERVIENEN

Por parte del Patronato Municipal de Cultura de Zizur Mayor, Dª. Pilar Toral Urquizu, Presidenta del mismo.

Por parte de la Asociación Cabalgata de Reyes Magos de Zizur Mayor: Rubén Aguas Urtasun, con DNI *********.

Las representaciones indicadas, reunidas para establecer el presente PROTOCOLO-CONVENIO llegan al acuerdo siguiente, mediante las estipulaciones que a continuación se citan:

**PRIMERA:**
El objeto del presente PROTOCOLO-CONVENIO, es regular las relaciones entre el Patronato de Cultura de Zizur Mayor, en adelante “Patronato” y la Asociación Cabalgata de Reyes Magos de Zizur Mayor, en adelante “Asociación”.

**SEGUNDA:**
Mientras esté en vigor este PROTOCOLO-CONVENIO, los componentes de la Asociación, se comprometen a la realización y organización de la Cabalgata de Reyes Magos del 5 de enero, así como a la promoción de dicho evento en la localidad.

**TERCERA:**
El Patronato cederá a la Asociación el uso de las carrozas, trajes de reyes, pajes y demás indumentaria del cortejo con que se contaba cuando aquel organizaba la actividad.

**CUARTA:**
El Patronato cede a la Asociación el uso de locales de propiedad municipal en la Plaza de la Mujer, al objeto de que pueda realizar las funciones de custodia, reparación y almacenaje previstas. La Asociación se coordinará con el resto de usuarios de los locales para su mantenimiento y limpieza. Asimismo, el Patronato posibilitará la cesión puntual de un espacio para las reuniones de la Asociación.

**QUINTA:**
El recorrido de la Cabalgata de Reyes se considerará como un acto oficial, por lo que el Ayuntamiento de Zizur Mayor proporcionará a la Asociación el apoyo logístico necesario, relativo a cesión de vehículos para montar las carrozas y asistencia de policía municipal durante el recorrido.

**SEIGARRENA:**

PROTOKOLO-HITZARMEN hau sinatu aurretik, Elkarteak apirilaren 30a baino lehen, aurreko ekitaldiari dagozkion txostena eta ekonomia-balantzea aurkeztuko ditu. Halaber, irailaren 30a baino lehen, hurrengo urterako Kabalgataren aurrekontua aurkeztuko dio Patronatuari.

**SEXTA:**

Previamente a la firma del PROTOCOLO-CONVENIO, la Asociación presentará, antes del 30 de abril, la memoria y balance económico correspondiente al ejercicio anterior. Asimismo, antes del 30 de septiembre, presentará al Patronato el presupuesto de la Cabalgata para el año siguiente.

**ZAZPIGARRENA:**

Patronatuak, bere aurrekontuetan Errege Magoen Kabalgata antolatzeko eta egiteko partida bat ezarriko du, diru-laguntza gisa. Zenbatekoa urte bakoitzerako izango da eta Patronatuaren aurrekontua hartuko da kontuan. 2017. urterako Elkarteak 8.605,00 euro jasoko ditu.

Era berean, Elkarteak entitateen ekarpenen bidez beste baliabideak lortzen saiatuko da, bai ekonomikoak bai logistikoak, berauek Errege Magoen Kabalgata finantzatzeko erabiliz.

**SEPTIMA:**

El Patronato establecerá en sus presupuestos una partida como subvención para la organización y realización de la Cabalgata de Reyes Magos. Su cuantía se establece para cada año, en base a la disponibilidad presupuestaria del Patronato, resultando que para el año 2017 la Asociación dispondrá de 8.605,00 euros.

De la misma manera, la Asociación intentará obtener otros recursos, tanto económicos como logísticos, a través de aportaciones de entidades, que destinará a la financiación de la Cabalgata de Reyes Magos.

**ZORTZIGARRENA:**

Elkarteak Errege Magoen Kabalgataren garapenean gerta daitekeen edozein kontingentzia babesteko Erantzukizun zibileko eta hirugarren batzuentzako kalteetarako asegurua kontratatzeko konpromisoa hartzen du.

**OCTAVA:**

La Asociación se compromete a contratar un Seguro de Responsabilidad Civil y daños a terceros, que cubra cualquier contingencia durante el desarrollo de la Cabalgata de Reyes Magos.

**BEDERATZIGARRENA:**

Elkartearen erantzukizuna izango da, Kabalgatan parte hartuko dutenen eta berak egingo duen ibilbidearen aukeraketa, hala ere, klimatologia-baldintzek edo beste motatakoek horrela gomendatuko balute aipatu ibilbidea alda dezakete, betiere, udaleko arduradunei aurrez jakiarazpena egin ondoren.

**NOVENA:**

Será responsabilidad de la Asociación, tanto la elección de los participantes en la Cabalgata como el recorrido de la misma, pudiendo alterarlo o modificarlo en función de aquellas circunstancias, climatológicas o de otra naturaleza que así lo aconsejaran, previa comunicación a los responsables municipales.

**HAMARGARRENA:**

Edozein aldek PROTOKOLO-HITZARMEN honetako baldintzak ez baditu betetzen, horrek kontratua desegitea ekarriko du.

**DECIMA:**

El incumplimiento de las condiciones del presente PROTOCOLO-CONVENIO por cualquiera de las partes, producirá la rescisión del mismo.

**HAMAIKAGARRENA:**

PROTOKOLO-HITZARMEN hau urtebetez izango da indarrean, segidako urteetan isilean luzatuz, baldin eta alderen batek hitzarmena salatzen ez badu.

**UNDECIMA:**

El presente PROTOCOLO-CONVENIO regirá por un año, prorrogándose tácitamente en años sucesivos, si ninguna de las partes expresamente lo denunciara.

Zizur Nagusian, 2017ko abenduaren 7an

Zizur Mayor, a 7 de diciembre de 2017

Sin./Fdo.: Pilar Toral Urquizu
Udaleko Kultur Patronatuburua

Presidenta Patronato Municipal de Cultura

Sin./Fdo.: Rubén Aguas Urtasun
Zizur Nagusiko Errege Magoen Kabalgataren Elkarteburua
Presidente de la Asociación Cabalgata de Reyes Magos de Zizur Mayor

PATRONATO DE CULTURA
Zizur Mayor

KULTUR PATRONATUA
Zizur Nagusia

## Hitzarmenaren eranskina

Hitzarmenaren 7. puntuan adierazi moduan, Elkartea bere jarduerarako finantzazioa lortzen saiatuko da. Helburu horrekin, 2017ko abenduaren 29an "Haurrentzako Jaialdi" bat ospatzeko konpromisoa hartzen du.

Patronatuak, bere aldetik, jaialdi horretarako pilotalekua erreserbatzeko ardura hartuko du eta 1.100 euro izango ditu bere aurrekontuetan erreserbaturik aipatu ekintza kultural horretan taldeak edo artistak kontratatzeko.

## Anexo al convenio

Tal y como se enuncia en la cláusula 7ª del convenio, la Asociación intentará obtener financiación para su actividad y, en este sentido, se compromete a organizar un "Festival Infantil" el 29 de diciembre de 2017.

El Patronato, por su parte, se encargará de reservar el espacio del frontón para la celebración de dicho acto y, asimismo, establecerá en sus presupuestos la reserva de una cuantía de 1.100 euros para financiar la contratación de grupos o artistas profesionales que participen en este acto cultural.

Zizur Nagusian, 2017ko abenduaren 7an

Zizur Mayor, a 7 de diciembre de 2017

Sin./Fdo.: Pilar Toral Urquizu
Udaleko Kultur Patronatuburua

Presidenta Patronato Municipal de Cultura

Sin./Fdo.: Rubén Aguas Urtasun
Zizur Nagusiko Errege Magoen Kabalgataren Elkarteburua
Presidente de la Asociación Cabalgata de Reyes Magos de Zizur Mayor